



FORU AGINDUA

Mendi Zerbitzua
Esp. zk.: ADM1 2026 3170

Salbuespenezko mugak eta debekuak aplikatzen jarraitzea zirkulatzeko, bertaratzeko eta sua erabiltzeko eta mendiko zenbait jarduera egiteko, mendietan eta haien 400 metroko inguruan, oso maila altuko edo muturreko baso sutearen arriskuak 2026ko ekainaren 25eko 20:00ak arte iraungo baitu. Muga eta debekuak ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduaren bidez adostu ziren.

Ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduaren bidez ezarri zen berehala aplika zitezen salbuespenezko mugak eta debekuak zirkulatzeko, bertaratzeko eta sua erabiltzeko eta mendiko zenbait jarduera egiteko, mendietan eta haien 400 metroko inguruan, EUSKALMETek Arabako Lurralde Historikoan maila oso altuko edo muturreko baso sutearen arriskua aurreikusten zuelako.

Foru Agindu hori Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuz eman zen. Artikulu horrek ezartzen duenez, Meteorologiako Estatu Agentziaren edo, hala badagokio, dagokion organo autonomikoaren informazio meteorologikoaren arabera lurralde eremu jakin batean oso maila altuko edo muturreko baso sutearen arriskua aurreikus daitekeenean, kasu horietarako aurreikusitako debekuak eta mugak aplikatu beharko dira berehala.

Ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduak neurri horiek 2026ko ekainaren 23ko 12:00etatik 2026ko ekainaren 24ko 23:59ak arte aplikatzea ezarri zuen, eta berariaz aurreikusi zuen ebazpen berri baten bidez luzatzeko, aldatzeko edo aldeztu aurretik kentzeko aukera, arriskuaren bilakaeraren arabera.

2026ko ekainaren 24an, EUSKALMETek Arabako Lurralde Historikoko baso suteen arrisku meteorologikoari buruzko eguneroko beste txosten bat eman zuen. Txosten horretan, baso suteen arriskuaren indize meteorologikoaren (FWI - Fire Weather Index) bilakaera jasotzen da, aurreikusitako datu meteorologikoekin kalkulaturik, hiru eguneko aurreikuspen epearekin.

Txosten horren arabera, 2026ko ekainaren 25erako, baso suteen arrisku meteorologikoaren indizearen (FWI) balio altuak mantentzen dira Arabako Lurralde Historikoan, eta lurraldeko eremu batzuk arrisku oso altuko edo muturreko mailatan mantentzen dira.

Horregatik, egiaztatu da etenik izan gabe irauten dutela ekainaren 23ko 176/2026 Foru Agindua onestea eragin zuten meteorologia eta ingurumen inguruabarrek, eta baso suteak pizteko eta hedatzeko arrisku altua dagoela, tenperatura, landarediaren lehortasuna, haizea eta arriskuaren gainerako faktore erabakigarrien baldintzen batuketaren ondorioz.



Horren ondorioz, salbuespenezko neurriak hartzea justifikatu zuten egitatezko oinarriek bere horretan jarraitzen dutenez, eta kontuan hartuta ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduak berak berariaz aurreikusten zuela luzatzeko, aldatzeko edo alde aurretik kentzeko aukera, arriskuaren bilakaeraren arabera, erabaki behar da neurri horiek aplikatzen jarraitzea 2026ko ekainaren 25eko 20:00ak arte.

Diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren hamargarren xedapenak (Arabako Foru Aldundiko sailak 2023-2027 legegintzaldirako zehazten dituena) eta Arabako Foru Aldundiaren gobernu, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 24.10 artikulua esleitutako eskumenen arabera,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aplikatzen jarraitzea ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduaren bidez ezarritako salbuespenezko mugak eta debekuak, egiaztatzen baita baso sutearen arriskua oso altua edo muturrekoa dela, eta hasiera batean aurreikusitako indarraldia amaitzen denetik 2026ko ekainaren 25eko 20:00etara arte luzatzea.

Bigarrena. Aldi horretan mantentzea ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduaren bigarren apartatutik zazpigarrenera aurreikusitako debeku eta muga guztiak, honako hauei buruzkoak: suaren erabilera, erretzeko baimenen aldi baterako etetea, su hartzeko arriskua sor dezaketen makinaren erabilera, material piroteknikoa sartzeta eta erabiltzea, eta baso sutea sor dezaketen gainerako jarduketak.

Hirugarrena. Foru Agindu honen xedea da ekainaren 23ko 176/2026 Foru Aginduaren bidez hartutako prebentzio neurriei etenik gabeko jarraipena ematea, kontuan hartuta neurriok onestea eragin zuten aparteko arrisku inguruabarrek bere horretan dirautela. Neurri horiek aplikagarriak izango dira foru agindu horretan hasiera batean ezarritako aldia amaitzen denetik, hargatik eragotzi gabe ALHAOn presaz argitaratzea eta eskuragarri dauden bitarteko instituzionalen bidez berehala zabaltzea, ezagutza orokorra bermatzeko.

Laugarrena. Foru agindu hau honako hauei jakinaraztea: Arabako toki erakundeak, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzua, Natura Ingurunearen Zuzendaritza, Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoa, Vitoria-Gasteizko suhiltzaileak, Ertzaintza, Miñoiak, basozainak, UAGA-Nekazari eta abeltzainen elkarteak, basoen zaintzaren aldeko elkarteak, Arabako ehiza barrutien elkarteak, nekazaritza kooperatibak eta parke naturaletako zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresak, Arabako Mendi Federazioa eta Gobernuaren Arabako Ordezkariordeztza. Halaber, eskatzen zaie ezarritako gomendioak eta debekuak herritarren artean ahalik eta gehien zabaltzeko, eta, bereziki, agintaritzaren agenteei eta toki erakundeetako agintariei agintzen zaie haiek betetzen direla zaintzeko.

Bosgarrena. Foru Agindu honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsioa, hilabeteko epean, Nekazaritza Saileko foru diputatuari, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, betiere Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Eskidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezarritakoarekin lotuta.



Noemí Aguirre Quintana

Nekazaritza Saileko foru diputatua
Diputada Foral de Agricultura

David Fernández Sarabia

Nekazaritza zuzendaria
Director de Agricultura